

## XIV.BASABURUKO BTT MARTXA

### Probaren helburua:

Basaburua-Imozko Kirol Batzordeak, orain aurkezten den ekitaldia antolatu du.

Ez lehiakor den mendi txirrindulako martxa baten antolaketa, Basaburuako mendietan zehar, 2024ko maiatzaren 18an, larunbata.

Martxa zirkular bat non ibilbide luzeak 38 kilometroko luzeera eta 1.100 metroko desnibel pilatua izango duen, motzak 22 km eta 600m izango dituen bitartean.

Martxa Jauntsarasko eskolatik abiatu eta zenbait herri edo udalerrri zeharkatuko ditu: Itsaso, Udabe, Beramendi, Ihaben, Gartzaron, Erbiti, Aizarotz eta Beruete, Jauntsaratseko polikiroldegiaren parean amaituko arte.

### Lasterketaren arautegia:

- 1- **Irteera eta helmuga:** Jauntsaraseko polikiroldegitik goizeko 9.30etan, maiatzaren 18an
- 2- **Irteera neutralizatua** Jauntsarastik Itsasoko bidegurutzera bidean (0,8 km errepidetik)
- 3- Aurre-izen ematea **Maiatzaren 16a** bitartean egin daiteke [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) web orrian.
- 4- **Dorsalak jasotzeko** egun berean, 18an, **irteera baino lehenago, 8.00-9.00 artean.**
- 5- Ibilbide osoan zehar buru-babesa eramatea derrigorrezkoa da.
- 6- Eguraldia dela eta antolatzaileek proba honen datak aldatu edo proba bertan behera uztea erabaki dezakete.
- 7- Ibilbidea oinez naiz bizikletaz egin daitekeenez, kontu handiz ibiltzea eta antolatzaileen aginduak betetzea eskatzen da.
- 8- Izen-ematearen ordainketa egin ondoren, bakarrik proba bertan behera uzten bada itzuliko da dirua.
- 9- Proban izen-emateak istripu eta erantzukizun zibileko aseguru darama. Kaltedun bakoitzeko gehienezkoa eta frankizia zehazteko dagoenez.
- 10- Proban parte hartzeak arautegi osoa onartzea suposatzen du: probaren gogortasunari buruz informatua egotea, eta istripuren bat edo zerbait gertatu ezker, osasun-zerbitzuei beharrezko arreta prestatzeko baimena ematea.

### Probaren Fitxa teknikoa

Data: Maiatzak 18  
Irteera ordua: 9:30  
Abia puntua: Jauntsaratseko polikiroldegia  
Distantzia: 22/38 Km.  
Desnibela: 600/1.100m  
Irteerako altuera: 550m.  
Gehienezko altuera: 795m.  
Anoa postua: Ihaben. Km.17

Ibilbidea	Km.	Abia puntua	Irteera ordua	Federatuak	Ez Federatuak
Jauntsarats - Jauntsarats.	22/38 Km.	Polikiroldegia	9:30	20 €	20 €

### Gomendioak:

- Ibilbidearen zoru gehiena lurrezkoa eta legarrezkoa den arren, lokatzezko edo gaizki egokitutako zatiak egon daitezke, aurreko egunetako eguraldiaren arabera. Zati arriskutsuenak zainaleztatuko dira.
- **Kasu!!!** Ibilbidean zehar errepidea gurutzatzen diren zenbait puntu daude. Nahiz eta antolatzaileak trafikoa bideratzen egon, puntu hauetan kontu handiz ibiltzea gomendatzen da.
- Dortsalak abia puntuan banatuko dira.

### Zerbitzuak:

- Proba nagusian parte hartzen duten guztiak oapri bat jasoko dute.
- Ihaben-en hornidura-postu bat egonen da, ibilbidearen 17. kilometroan. Gozokiak, fruta eta edariak izango dira.
- Proban izen-emateak, **istripu eta erantzukizun zibileko aseguru**a darama, lasterketan gertatutako lesioak beteko ditu.
- **Osasun laguntza** ibilbidean zehar. Anbulantzia eta lur orotako ibilgailua.
- Proba bukatu ondoren, Jauntsarasko polikiroldegian ogitartekoak banatuko dira parte hartzaileen artean.
- Dutzak eta aldagelak Polikiroldegian.
- Txirrinduletarako mahuka zerbitzua.

Basaburuan 2024ko Otsaila.